



## Nerabe: grinatsu eta herabe

**Nerabezaroan** gorputza aldatu egiten zaigu, eta ematen du oraindik geurea ez den gorputz baten barruan bizi garela, arraro batean. Kontraesan batek bizi gaitu. Alde batetik, konplexuak ditugu, eta bestetik, guztien gustagarri edo desiragarri izan nahi dugu.

Gorrotu dut neure gorputza! Zergati diogu hori? Ugariak dira arrazoiak, aitzakiak: **boladan dagoen** arropan ezin sartua, edo geure burua **arnasestuka** ikustea jantzi-denda bateko **aldagelan** galtza eder bezain estu batzuetako botoiak lotu ezinik, edo telebistak **aldioro** erakusten dizkigun **neska-mutil katxarro** erdi biluziekin geure burua konparatu nahia... Baina bada ezaugarri bat, beste guztien gainetik, guztiz **asaldatzen** gaituena: beldurra, barren-barrenetik sortua, besteen aurrean itsusi eta **zatar** azaltzeko beldurra.

Ez dugu gorputz perfektua, baina ditugun akatsek **ezinegona** sortzen badigute, ezinegon **eramangaitza**, laster izango ditugu gurekin arazo psikologikoak, eta horiek lehenbailehen aztertu eta konpondu beharrekoak izaten dira. Eta nerabeak beren konplexuekin eskolara joaten direnean, a zer komeriak. Batek belarri zabalak dituela, Dunbo gisakoak, besteak betaurrekoak behar dituela, edo Bilintxen antzeko **sudurtzarra** duela, edo gizenegi dagoela edo flakiak jota... Arazo horiekin bizi behar eta gainera, askotan, ikaskideen trufak eta txantxak jasan behar izaten dituzte. Baina ezer jasan gabe ere asko dira profesionalengana jotzen duten nerabeak, sudurra eta belarriak edertzeraz, adibidez.

Jakina, askoz ere errazagoa da akats txikiak konpontzea. Besterik da casting-etan eskatzen den gorputza ez izateagatik, edo aldizkari eta iragarkietan azaltzen diren gorputz idiliko horiek ez izateagatik sortzen den **atsekabe iraunkor** hori **aldean eraman** beharra. Hortzak zuzentzeko burdinatxoak gaur edozeinek dauzka, ez zaigu arraro egiten. Baina 13-14 urterekin, urtebete-tze-opari gisara, gurasoei bularrak handitzeko ebakuntza ordainaraztea, hori zentzugabekeria da. 90-60-90 neurri liluragarri ezinezko horiek lortzeko, zakukada-silikonaz bete nahi izaten dituzte errapeak, Pamela Anderson gogoan, 14-16 urteko neska motzek. *Sociedad Española de Cirugía Reparadora y Estética*, SECPRE delakoa, oso kezkatuta dago, eta Espainiako Gobernuari eskatu dio, horrelako ebakuntzak egin nahi direnean derrigorrezkoa izan dadila psikologo, psikiatra edo etxeko medikuaren iritzia. Eta eurek esan dezatela ebakuntza beharrezkoa den ala ez. Konturatu baitira askotan nesken kapritxo hutsa dela, eta zenbait gurasok, **zentzumen**a galduta, aurka edo gogor egin ordez **men egiten** dietela, animoso askotan, alaba horien **nahikeriei**. ■

**ALDAGELA.**- *Vestuario. Vestiaire.*  
**ALDEAN ERAMAN.**- *Llevarlo consigo.*  
 Emporter avec soi.  
**ALDIORO.**- *Continuadamente.*  
 Toujours.  
**ARNASESTUKA.**- *Ahogándose.*  
 En se noyant.  
**ASALDATU.**- *Ponerse nervioso/a.*  
 (S') énerver.

**ATSEKABE.**- *Aflición. Peine.*  
**BOLADAN EGON.**- *Estar de moda.*  
 Être à la mode.  
**ERAMANGAITZ.**- *Insufrible.*  
 Insupportable.  
**EZINEGON.**- *Ansiedad. Impatience.*  
**IRAUNKOR.**- *Permanente. Durable.*  
**MEN EGIN.**- *Claudicar. Se soumettre.*  
**NAHIKERIA.**- *Capricho. Caprice.*

**NERABEZARO.**- *Adolescencia.*  
 Adolescence.  
**NESKA/MUTIL KATXARRO.**- *Tío/a*  
*bueno/a.* Beau garçon, belle fille.  
**SUDURTZAR.**- *Narizota.* Nez grand.  
**ZATAR.**- *Feo/a.* Laid/e.  
**ZENTZUMEN.**- *Sentido.* Bon sens.

